

ISSN: 2530-6561  
2018ko iraila  
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko  
Lankidetzeta eta  
Garapenari Buruzko  
Ikasketa Institutua

Universidad del  
País Vasco /  
Euskal Herriko  
Unibertsitatea  
UPV/EHU

## Globalizazioa eta tokiko garapena

Mikel Zurbano  
Elena Martinez Tola  
Xabier Gainza  
Pablo Arrillaga



# Globalizazioa eta tokiko garapena

Mikel Zurbano  
Elena Martinez Tola  
Xabier Gainza  
Pablo Arrillaga

Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

## Aurkibidea

|  |           |
|--|-----------|
| <b>1.</b> Sarrera .....  | <b>5</b>  |
| <b>2.</b> Tokikoa eta globala .....  | <b>5</b>  |
| 2.1. Tokikoaren indartzea globalizazioan   | 5         |
| 2.2. Eskala anitzeko gobernantza   | 6         |
| <b>3.</b> Eskualde garapenaren ikuspegi teoriko desberdinak: azken hamarkadetako bilakaera ..... | <b>7</b>  |
| 3.1. Eskualdeen arteko desberdintasunak eta epe luzeko konbergentzia edo dibergentzia            | 7         |
| 3.2. Ikuspegi berriak: garapenerako lurralde ezaugarriak aztergai                                | 9         |
| <b>4.</b> Tokiko garapenaren ezaugarri nagusiak.....   | <b>11</b> |
| 4.1. Garapenaren ikuspegia   | 11        |
| 4.2. Behetik gorako garapen estrategia da  | 12        |
| 4.3. Lurraldea, subjektu eraldatzaile gisa   | 13        |
| 4.4. Baliabide endogenoak eta exogenoak  | 14        |
| 4.5. Kapital soziala   | 14        |
| <b>5.</b> Garapen ekonomikotik giza garapenera .....   | <b>15</b> |
| <b>6.</b> Teoriatik praktikara .....   | <b>16</b> |
| 6.1. Gipuzkoa Sarean   | 16        |
| 6.2. Rafaela (Argentina)   | 17        |
| <b>7.</b> Azken gogoeta .....  | <b>19</b> |
| Bibliografia .....   | <b>20</b> |

## Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza  
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurrezaga  
Iker Etxano  
Mertxe Larrañaga  
Elena Martínez Tola  
Mikel Zurbano

---

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

### Globalizazioa eta tokiko garapena

Egileak: Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga

hegoak zabalduz - 8. zk. 2018 iraila

ISSN: 2530-6561



[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)

UPV/EHU. Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81  
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91  
Faxa: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa  
Elhuyar Plaza, 2  
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64  
Faxa: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia

138. posta-kutxa  
Nieves Cano, 33  
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

---

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak, Creative Commonsen lizentzia honekin argitaratzen dira:



Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 3.0 España.

Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Finantzatzailea:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

**Laburpena:** Gaur egungo globalizazio testuinguruak tokikoaren indartzea ekarri du, dinamika globalak tokiko mailan gauzatzen direlako, batetik, eta, bestetik, aukera eskaintzen duelako lurraldean dauden baliabideez baliatuz eraldatze prozesu bat martxan jartzeko. Hori abiapuntu izanik, ale honek tokiko garapena zer den azaltzea du helburu, egon diren ikuspegi teoriko desberdinak aurkeztuz eta horien ezaugarri nagusiak laburtuz. Bestetik, tokiko garapenaren eta giza garapenaren arteko loturak ere lantzen dira, bestelako garapen bat lortzeko erronkak azpimarratuz. Azkenik, teoria lurralde konkretuetan nola gauzatzen den islatzeko tokiko garapenaren esperientzia bi aurkezten dira: Gipuzkoa Sarean eta Rafaela (Argentina).

**Gako-hitzak:** Tokiko garapena, globalizazioa, lurraldearen garapen teoriak, gobernantza.

**Abstract:** The ongoing globalization has revitalized the local scale as global processes materialize in particular spaces and, besides, the local provides the conditions for a socioeconomic transformation process that considers the area's resources and institutions. Based on this framework, this paper aims to explain what local development is, discussing the different theoretical approaches and summarizing its main characteristics. The paper also explores the relationship between local development and human development, underlying the main challenges for an alternative development framework. Last, two cases are presented, Gipuzkoa Sarean and Rafaela (Argentina), to show how theoretical concepts apply in concrete territories.

**Keywords:** Local development, globalization, regional development theories, governance



## 1. Sarrera

Azken hamarkadetak tokiko esparruaren berrindartzea ekarri dute. Paradoxikoa badirudi ere, tokikoaren protagonismo berri hori globalizazio testuinguru batean gertatu da, batetik, mundu mailako fluxu eta dinamika lurralde konkretuetan gauzatzen direlako, eta, bestetik, globalizazioari aurre egiteko lurraldean errotutako prozesuek eskaintzen dituzten potentzialtasunengatik. Zentzu horretan, tokioa indarrez sartu da Iparraldeko zein Hegoaldeko herrialdeen agenda politikoan. Horren lekuko ditugu munduko hainbat herrialdetan gertatzen ari diren garapen esperientziak, lurraldetik abiatuz dinamika eta gobernatze modu berriak proposatzen dituztenak.

Tokikoaren berrindartzea bada ere joera nagusia, ez dago bide bakarra. Batzuek enpresa eta sistema produktiboei eskaintzen dizkien abantailak azpimarratzen dituzten bitartean, beste batzuek aukerak ikusten dituzte gizarte-harremanak modu parte-hartzaileago batean antolatzeke eta beste garapen eredu bat lortzeko. Ildo horretan, tokiko garapena ez da teoria bateratu bat, baizik eta korronte eta proposamen desberdinez aberastutako hausnarketa multzoa, bakoitzak bere berezitasunak dituelarik.

Lerro hauetan, tokiko garapenaren teoria, ezaugarriak eta potentzialtasunak landuko ditugu. Tokikoaren eta globalaren arteko loturekin hasiko gara; azalduko dugu zer arrazoi dauden gaur egungo globalizazioak tokikoaren indartzea eragiteko. Ildo horretan, azpimarratuko dugu testuinguru horrek harreman sozioekonomikoak kudeatzeko modu berriak ekarri dituela. Gaur egun, gobernuari baino, gobernatzeko ekintzari erreparatzen zaio, eta hori eskala desberdinetan dauden eragileen parte-hartzearekin gertatzen da, alegia, *eskala anitzeko gobernantza* da. Jarraian, azken hamarkadetan lurralde garapenaren inguruan garatu diren ikuspegi teoriko nagusiak laburtuko ditugu. Horietatik abiatuta, laugarren atalean tokiko garapenaren ezaugarri nagusiak bilduko ditugu, eta, gero, tokiko garapenaren eta giza garapenaren arteko loturak aztertuko ditugu. Azkenik, Gipuzkoa Sarean eta Rafaelako (Argentina) garapen esperientziak azalduko dira, aurreko ataletan landutako ideiak kasu konkretuetan nola gauzatzen diren erakusteko.

## 2. Tokioa eta globala

Urte askoan, ekonomiaren lurralde ikuspegia lantzerakoan, lurralde maila bakoitzaren azterketa soila egin izan da. Globalizazioaren azterketa nazioarteko ekonomiaren esparruan soilik egiten zen, edo, gehienez ere, estatu-nazioaren ekonomiarekin lotuta. Era berean, tokiko lurraldeen azterketarako, tokiko esparrua (erregioa, eskualdea, udalerrria...) hartzen zen aintzat, bestelako lurraldeekiko harremanak bigarren mailako zeregin gisa hartuta. Edo tokiko ekonomia globalizazioaren azpiero gisa hartu izan da, mendeko kategoria gisa.

Dena dela, azkenaldian, bi esparruak –globala eta tokioa– txanpon beraren bi aldeak balira bezala hartzen dira. Globalizazio prozesuaren dinamika eta garapenak tokiko mailan gauzatzen dira, eta tokiko prozesuak hertsiki daude lotuta dinamika eta eragile globalekin. *Glokalizazioaren neologismoa* hainbat espazio mailatako dinamika eta prozesu sozioekonomiko bakarraren adierazpena da (Swyngedow, 1997).

### 2.1. Tokikoaren indartzea globalizazioan

Tokiko ekonomiak presentzia handia eskuratu du azken hamarkadetak azterketa teorikoetan eta esku-hartze politikoan. Tokikoaren indartze hori bat etorri da globalizazioaren hedapen nabarmenarekin. Bi fenomenoek hedapen bateratuak paradoxikoa dirudi; izan ere, fluxu ekonomiko globalak handitzeak eta ekonomia distantzia murrizteak tokiko ekonomia ahitzeko arriskua bizkortu lezake.

Egia da globalizazioaren eta tokikoaren arteko kateatzeak txiki uzten duela lurraldea indar eta eragile globalen aurrean. Lurralde batzuek erantzun dinamikoa eta erresilientea ematen diote globalizazioak dakarren erronkari, eta beste batzuek –gehienek, tamalez– zailtasun gehigarriak dituzte errealitate global aldakorrari erantzun egokiak emateko. Ingurune globalarekiko tokiko ekonomien egokierak indartu egiten

du tokiko ekonomia eta lurraldeen arteko lehia. Eta lasterketa horretan, lurralde batzuek irabazi egiten dute, eta beste batzuek, galdu (Benko eta Lipietz, 2000).

Beraz, globalizazioak aukerak eskaintzen ditu balio kate globaletan eta ezagutza prozesuen sareetan ondo kokatuta dauden lurraldeentzat. Baina, era berean, lurralde eta tokiko ekonomia askoren kanporatze prozesuak sortzen ditu, tokiko produkzio sistemak ahulduta edo suntsituta, edo lanaren nazioarteko banaketa berritik alboratuta. Globalizazioan galtzaile direnak langabezia gorakorren, produkzioaren eta sare sozialaren desegituraketaren, txirotzearen eta desberdintasunen igoeraren lekuko dira.

Nolanahi ere, goitik beherako eredu honetatik harago bada beste bat: globalizazioaren eta lurraldearen arteko dinamikak ulertzeko orduan, behetik gorako prozesua lehenesten duena, hain zuzen. Munduko harremanak eta fluxuak nagusitzen direla kontuan hartuta, prozesu horietan ez da lehentasuna produkzioaren espezializazioa bilatzea, balio kate globaletan ondo koka daitezkeen. Aitzitik, dinamika horietan, xedea da garapenerako komunitate-proiektu integral eta iraunkor batera heltzea. Alabaina, ezin ahaztuta utzi tokiko gaitasunen eta baliabideen indartzea eta tokiko prozesu sozioekonomikoen egokitzapen dinamikoa eraldatzen ari den testuinguru globalaren mendekoa dela.

## 2.2. Eskala anitzeko gobernantza

Gobernantzaren baitan daude komunitate batek ekintza kolektiborako dituen mekanismoak eta ondasun publikoen hornidurarako erabakiak hartzeko moduak. Modu horiek anitzak dira ereduari dagokionez. Gobernantzak gobernatzeko ekintzari erreparatzen dio, eta gobernu, aldiz, gobernantzaren tresna bat da. Gobernantza sistemek gobernu ugari bildu ohi dituzte; horregatik, eskala anitzeko gobernantzak gobernu ugariaren presentziaz haragoko sistema adierazi nahi du.

Eskala anitzeko gobernantzaren ideia Europar Batasunaren ereduaren analisiarekin lotzen da hasieran; izan ere, Europar Batasunean ekinbide politikoa ez da solik bi mailen arteko auzia (europar erakundeak eta herrialdeak), baizik eta maila anitzekoa (tokiko gobernuak, erregioak, interes taldeak edo eragileak, gizarte zibilaren erakundeak...). Beraz, europar erakundeek ekarpena egin dute politika publikoak egiteko modu berritzailea, estatueta oinarritutako eredu zaharra alboratu eta eragile anitzen partaidetza oratzen duena, heda dadin.

| 1. taula. Eskala anitzeko gobernantza berria |  |  |
|--|--|--|
| Dikotomia                                    | Eredu zaharra                          | Eskala anitzeko gobernantza  |
| Barne vs. kanpo arazoak                      | Estatuak kontrolatua                   | Tokiko gobernuak ere gai hauetan erabakitze ahalmena   |
| Zentroa vs. periferia                        | Estatuak kontrolatua                   | Tokiko gobernuak ere gai hauetan erabakitze ahalmena   |
| Estatua vs. gizartea                         | Eredu hierarkikoa (Estatua gailurrean) | Eragileen parte-hartzearen garrantzia. Gizarte zibileko eragileek ere erabakitze ahalmena. Estatuaren lidergoa oraindik orain. |

Iturria: Geuk egina, Noferini (2010) oinarri hartuta.

Eskala anitzeko gobernantzak aldaketa garrantzitsuak eragin ditu eredu zaharrekiko, 1. taulan agertzen diren irizpide dikotomikoei dagokienez. Hala, estatuak jada ez dute kontrolerako ahalmen osoa zentro-periferiaren arloan, ez eta barne eta kanpo arazoaren arteko mugarria erabakitzerakoan ere. Izan ere, erregioek edo tokiko instituzioek EBren politiketan eragiteko ahalmen irekia dute, estatuaren nahiaren gainetik. Estatuz azpiko gobernuak nazioartera jotzen dute, europar instituzioen aukera berriak aprobetxatuta ikusgarritasuna, baliabideak eta zilegitasuna eskuratzeko asmoz.



Taularen hirugarren dikotomia politika publikoak eraikitzeke garaian estatuak eta gizarteak duten zereginaren banaketa da. Kasu horretan ere, eredu zaharreko estatuaren erabakimen hierarkikoak beste eredu bati bide ematen dio. Eskala anitzeko gobernantzak eragile guztien parte-hartzearen garrantzia azpimarratzen du, betiere, legitimazio demokratikoa eta politiken gardentasuna zein efikazia hauspotzeko. Hala, bada, administrazio publikoak (estatu, erregioa, tokikoa) erabakiak hartzeko mekanismoak gizarte zibilaren eragile nagusiei zabaldu beharrea aurkitzen dira. Nolanahi ere, politika publikoak proposatzean, erakunde publikoek eusten diote lidergoari, baina era irekian.

Eskala anitzeko gobernantzaren eraikuntzak ekar dezake tokiko gobernantza testuinguru globalarekiko erresilienteago izatea, tokiko komunitateak prozesuan benetako subjektuak izatekotan. Behetik gorako gobernantza indartzerakoan, bi tresnak dute aparteko garrantzia. Alde batetik, kapital soziala dago. Kapital sozialaren osagai batek lurralde ugarietako eragile anitzen arteko harremanetan jartzen du arreta. Konfiantza eta ezagutza partekatuko sareetan oinarritzen den kapital sozial hori indartzeak ahalbidetzen du komunitate arteko sare instituzional eta sozialak ahalbidetzea.

Eskala anitzeko gobernantzan tokiko ekinbidearen lehentasuna bultzatzen duen bigarren tresna subsidiaritate hastapena da. Printzipio horren arabera, hurbilekoenak diren lurraldeena da gobernantzaren ardurua nagusia. Beraz, maila goreneko instituzio zein eragileek soilik maila apalagoetan gauzatu ezin diren jarduerak eta prozeduretan eragin beharko lukete. Horrek ez du esan nahi behetako eskala denik arazo guztientzat onena, baina subsidiaritateak oinarritzko lurralde mailan jarduteko ekinbidea lehenesten du.

### **3. Eskualde garapenaren ikuspegi teoriko desberdinak: azken hamarkadetako bilakaera**

Tokiko eta eskualde garapenaren inguruan hainbat eskola eta ikuspegi teoriko garatu izan dira historian zehar, eta garai bakoitzean identifikatu diren eskualde arazoak eta horiei emandako politika erantzunak eboluzionatuz joan dira. Dena dela, bi etapa nagusi bereiz daitezke. Batetik, eskualde garapen desorekatuaren arazoa azaltzen duten ikuspegiak ditugu; horiek planteatzen duten galdera hau da: zergatik dira eskualde batzuk aurreratuak eta beste batzuk, aldiz, atzeratuak? Bestetik, lurralde ikuspegi berria dugu, zeinetan lurraldea bera bilakatzen den garapenerako protagonista eta bertan dauden elementuak eta elkarren arteko harremanak aztertzen diren.

Teoriekin batera, sortzen diren arazoei aurre egiteko eskualde edo erregio politika ere aldatuz joan da. Erregio politikaren abiapuntua zera da: garapen ekonomikoa gune berezi batzuetan polarizatzeko joera dauka, ez da lurraldean zehar era berean zabaltzen, eta, horrela, estatu bateko eskualdeen artean desparekotasun handiak sortzen dira. Hasiera batean, erregio politika lurraldeen arteko desorekak desagerrarazteko neurrietan oinarritzen zen, eta neurriok gutxien aurreraturako eskualdeen garapenera zuzentzen ziren. Gaur egun, aldiz, lurralde garapena da nagusi, eta lurralde bakoitzaren egoeraren hobekuntza bilatzen da. Hori hala izanda testuingurua gero eta lehiakorragoa denez, erregio arazoa nahiko orokorra da, eta, aldi batean edo bestean, lurralde guztiei eragin die, nahiz eta intentsitate desberdinak dauden.

#### **3.1. Eskualdeen arteko desberdintasunak eta epe luzeko konbergentzia edo dibergentzia**

Eskualde zientziak lurraldeen arteko desberdintasunak aztertu ditu hasieratik, eta, testuinguru horretan, diferentzia horien oinarriak eta epe luzeko bilakaera ditu aztergai. Zergatik diren eskualde batzuen hazkunde tasak handiagoak edota lurraldeen arteko diferentziek handitzeko edo txikitzeke joera ote duten; horiek dira, besteak beste, argitu nahi dituzten galderak. Bi ikuspegi nagusi daude horiei erantzuteko: konbergentzia defendatzen duten teoriak, alegia, eskualdeen arteko aldeek denboran zehar desagertzeko joera dutela defendatzen dutenak; eta dibergentziaren ikuspegiak, zeinek azaltzen duten ez dagoela eskualdeen arteko diferentziak desagertzeko joerarik (Mella, 1998).

Eskualde konbergentziaren ikuspegiak teoria ekonomiko neoklasikoaren oinarriak barne hartu zituen, eta garrantzi handia izan zuen Bigarren Mundu Gerraren osteko garaian. Ikuspegi horrek epe luzeko lurraldeen arteko bateratze prozesua proposatzen zuen. Teoria horren hasierako hipotesiak oso murriztaileak ziren, eta, horietan oinarrituta, hurrengoa planteatzen dute: langileak gutxien aurreratuta dauden erregioetatik garapen handiko lurraldeetara joango dira, soldata altuagoak baitituzte; eta, alderantziz, kapitala, etekin altuagoen bila, gehien aurreratuta dauden lurraldeetatik mugituko da garapen txikiagoa duten lurraldeetara. Horrela, baliabideen mugimenduei esker, lurralde guztiek garapen maila berbera lortuko dute.

80ko hamarkadan, hazkunde endogenoaren teoriak faktore berriak sartu zituen eredu neoklasikoaren oinarritzko suposizioetan, teknologia, giza kapitala eta azpiegiturak, besteak beste. Zentzu horretan, azpimarratu zuen zer garrantzi duten giza kapitalean eta teknologian egiten diren inbertsioek lurraldeen arteko hazkunde ekonomikoa eta konbergentzia azaltzerako orduan.

Konbergentzia teoriak kritika sakonak jaso zituen. Batetik, oinarritzko hipotesiak eta suposizioak bakunegiak zirelako. Bestetik, lurraldeen arteko konbergentzia ez zelako bete, kontrakoa baizik. 60ko hamarkadako hiri eta landa eremuen arteko migrazio prozesuek agerian utzi zuten lurralde garapenaren prozesuen metatze izaera, eta, horrela, ez ziren betetzen merkatuaren bidezko konbergentziarako joerak. Aitzitik, agerian geratu zen estatuak bete beharreko zereginaren garrantzia.

Zentzu horretan, eskualde dibergentziaren ikuspegiak onartzen dute lurraldeen arteko desberdintasunak hazkunde ekonomikoaren ezaugarriak direla, eta baieztatzen dute desorekak orokorrak eta iraunkorrak direla. Kapitalismoaren bilakaerak desparekotasunak sortzen ditu lurraldean, hazkunde ekonomikoa kontzentratu eta polarizazioa handitzen baitu. Hortaz, Estatuak hainbat neurri hartu beharko ditu, eta erregio politikaren beharra azpimarratu. Ikuspegi horrekin lotutako teoria batzuk sortu ziren; besteak beste, hauek: oinarri esportatzailearen teoria, hazkunde poloen teoria eta Kausazio Metakorraren Teoria, nagusiki, zeinean Keynesek landutako teoriak oso eragin handia izan zuen.

Oinarri esportatzailearen teoriak dioenez, lurralde bateko hazkundea bertan dagoen industriaren kanpo eskariarekin lotuta dago. Horrez gain, sektore esportatzaileak eragina izango du erregioeko beste sektoreetan, horien hazkundea ere bultzatuz, eta, horrenbestez, esportaziorako gaitasuna sustatzeko politiken egokitasuna proposatzen du. Ikuspegi horren ekarpenen artean daude lurraldeen arteko harremanen garrantzia eta erregioen ekonomia aztertzeke orduan ekonomiaren irekiera mailaren analisia azpimarratzea.

Kausazio Metakorraren Teoriak (Myrdal, 1957; Hirschman, 1958) azpimarratzen du merkatuko indarrek erregio arteko desorekak areagotzen dituztela, hasieran abantaila gehiago dituzten erregioen egoera finkatuz. Horrela, erregio batek hasieran zer faktore dituen, horrexek ezarriko ditu haren hasierako abantailak, eta, behin hazkunde prozesua hasita, ekoizpen faktoreak erakarriko ditu era hazkor batean, eta horrexegatik esaten da prozesua metakorra dela. Garatuago dauden guneak zirkulu bertutetsu batean sartzen dira, eta beraien hazkundea gero eta handiagoa izango da. Bestetik, hasieratik atzean gelditzen diren guneak zirkulu biziotsu batean sartzen dira, eta ekoizpen faktoreak beste leku batzuetara joaten dira. Myrdalek ezarri zuen erregio politikaren egitekoa funtsezkoa zela; estatuak neurriak hartu beharko ditu gutxien aurreratuta dauden eskualdeetan egoera aldatzeko, ekoizpen faktoreak leku horietara bideratu daitezkeen. Hala ere, egiaztatu zen oso zaila dela denboran zehar lurralde arrakastatsuan metatzen diren ezaugarriak beste leku batean errepikatzea.

Hazkunde poloen teoriak (Perroux, 1955) ikuspegi mikroekonomikoa dauka, eta nabarmentzen du zer garrantzi duen, lurraldeen arteko hazkunde desberdina azaltzerako orduan, hazkunde dinamikoa sorraraz dezakeen industria lider bat izateak. Industria horren inguruan sortzen da, halaber, industria multzo bat, zeinetan industriak estu erlazionatuta dauden beraien artean; horrela, azkenean hazkunde poloa sortuko da, berrikuntzaren gune sortzaile eta hedatzaile espazial gisa ulertzen dena. Zentzu horretan, estatuaren zeregina garrantzitsua da, eta hazkunde poloak sustatu beharko ditu gutxien aurreratuta dauden lurraldeetan, nahiz eta poloetan ematen diren ezaugarri berberak errepikatzea oso zaila den, praktikan egiaztatu zen bezala.

Lurraldeen arteko hazkundean eta garapenean zeuden desorekak salatzen zituzten teoria kritikoek ere ekarpen oso interesgarriak egin zituzten 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetan. Erdigune-Periferiako teoriak, besteak beste, aurreko ikuspegi keynesiarrak eta kritika marxista hartzen ditu oinarri. Kapitalaren eta atzerriko inbertsioen zeregina ikertzen ditu sakontasunez, eta gune ekonomikoen egitura hierarkikoa nabarmentzen du, nazioarteko zein erregioen arteko maila; hori metatze ereduaren arabera da, ez errenta mailaren arabera (Amin, 1986). Erdigunean dauden ekonomiek aurrerapen teknikoaren etekinak mantentzen dituzte, eta, horrela, euren ekoizpenerako eta kontsumorako ahalmena artikulatzea lortzen dute. Periferian dauden ekonomiek ezin dituzte mantendu produktibitatean egindako aurrerapenak, eta kanpora joaten dira merkataritzaren eta etengabeko doikuntza finantzarioaren bidez. Kanpo merkatuek zehazten duten ekoizpenerako ahalmena ezin da lotu barruko kontsumorako ahalmenarekin, eta, gainera, nazioarteko mailan prezio baxuetan oinarritutako lehia sartuko dira.

Lan zatiketa espazialarekin lotutako ikuspegiak ere aurrekoetan oinarritzen dira. Horren arabera, Bigarren Mundu Gerraren osteko ereduak lan zatiketa espazial zehatz bat eragin du, zeinetan jardura ekonomikoak lurralde batean edo bestean kokatuko diren, haren dinamismoaren arabera. Eredu fordista horren krisiarekin azaltzen du lan zatiketa berriaren sorrera, kapitalismoaren berregituraketaren eta gizarte-aldaketaren prozesuaren emaitza gisa (Massey, 1979). Kapitalismoaren bilakaerak merkatuaren harremanak hedatzea ekarri du, eta, horrela, lurraldeen arteko integrazio sakonagoa. Ikuspegi honen arabera, hiru lurralde mota bereiz daitezke: zentroak edo erdiguneak, zeinean bizimodu eta ekoizpen era menderatzaileak ezartzen diren; periferiak, zeinean zaharkituta dauden bizimoduak eta ekoizpen erak mantentzen diren; eta azkenik, erdi-periferiak, zeinek erdibideko posizioa duten eta goi-mailako jarduerak eta zaharkituta daudenak batera kokatuko baitira, eta gertaera horrek barruko kontraesan handiak eragiten ditu.

### 3.2. Ikuspegi berriak: garapenerako lurralde ezaugarriak aztergai

Aurrekoekin alderatuz, ikuspegi berriek garapenerako lurraldeak duen garrantzia azpimarratzen dute, bertan dauden elementuak eta elkarren arteko harremanak aztertuz. Azken hamarkadatan teoria ugari garatu izan badira ere, jarraian ikuspuntu hauek aurkeztuko ditugu: garapen endogenoa, lurralde lehiakortasuna, erregio garapen jasagarria, gizarte berritzailea duen erregioa eta erresilientzia.

Garapen endogenoaren inguruan hurbilketa asko badaude ere, guztiek ideia nagusi bat partekatzen dute: lurraldeak (hiriak, eskualdeak, erregioak, herrialdeak, eta abar) beren potentziala mobilizatuz garatzen dira, tokiko agenteen bultzadapean, enpresek zein erakunde publikoek egindako inbertsioak erabiliz. Prozesu horiek agertzea eta garatzea bultzatzen duten elementuak hauek dira: agenteen arteko gizarte-sareen trinkotasuna, tokiko ekoizpen sistemen antolaketa, tokiko kultura eta balioak, kapital sozialaren garrantzia, ikaskuntza elkarreragileetan oinarritutako prozesuak, eta abar. Horiek bi ideia nagusi garatzen dituzte: batetik, tokikoaren birbalarazioa, eta, bestetik, hainbat arlotako aldagaien integrazioa (ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta ingurumenekoak, besteak beste). Horrela, lurraldearen kontzeptuak dimentsio desberdinak izango ditu. Lehendabizi, materialak eta ez materialak diren ekoizpen eta teknologia faktoreek osatutako dimentsio ekonomikoa; bigarrenik, kapital sozialak osatzen duen gizarte eta ekonomia dimentsioa; eta, hirugarrenik, dimentsio politikoa, hau da, tokiko gobernanzarako sistema, zeina tokiko erakunde publikoen sistemak eta agente pribatuek osatuta dagoen.

Garapen endogenoaren baitan, Vázquez Barquerok (2007) gizarte-ekonomia eta ikuspegi estrategikoak bereizten ditu. Gizarte-ekonomiak lurralde bakoitzean dauden baliabide eta ahalmenen erabilera, autonomian eta elkartasunean oinarritzen diren politikak eta estrategiak planteatzen ditu. Alegia, merkatuek eta gobernuek asetzen ez dituzten gizarte-beharrei erantzuna emateko sortzen da. Zentzu horretan, bultzatzen diren proiektuak gizarte-ongizatea lortzera bideratuta daude, eta herritarren parte-hartzea ere ezinbesteko elementu gisa identifikatzen da. Bestetik, ikuspegi estrategikoak lurraldean dauden indarguneak dinamizatzea proposatzen du; horretarako, zerbitzuak ematen dituzten erakundeak erabiltzen ditu. Era horretan, gobernanzarako sistema berriak erabiltzen ditu: kudeaketa-eredu parte-hartzaileak eta deszentralizatuak eta eragileen arteko elkarrekintzarako era berriak. Horrek oso harrera ona izan du tokiko eragileen artean, lehiakortasuna bultzatzeko, enplegua sortzeko eta pobrezia aurre egiteko proposamenak argiago aurkezteko aukera ematen baitu.

80ko hamarkadaz geroztik, lurralde lehiakortasunarekin lotutako ikuspegiak eragin handia izan dute, teorian zein praktikan lehiakortasunaren kontzeptuak izan duen garrantzia dela-eta; izan ere, Europar Batasunak eta nazioarteko beste erakunde batzuek kontzeptu hori erabili ohi dute. Porterren (1990) ekarpenek inflexio puntu bat ezarri zuten. Autore horrek eskualde lehiakortasuneko ezaugarriak eta enpresen lehiakortasunean oinarritutako teoriak integratu zituen, nahiz eta planteatzen duen lehiakortasunaren kontzeptua produktibitatearekin lotuta dagoen. Hala ere, lehiakortasunarekin lotutako diskurtsoa oso hedatuta dago, eta, ondorioz, lurraldeen arteko lehia areagotu egin da. Diskurtso horrek adierazten duenez, eskualdeetako ekonomiek etengabe doitu beharko dute euren faktoreen hornidura, merkatu globalak aldatzen diren heinean. Hartara, behin eta berriz moldatu behar diren estrategia erreaktiboak izango dituzte lurraldeek.

Tokiko garapenaren hausnarketan nagusi izan den ikuspegi ekonomikotik aldendu nahian, azken urteetan zenbait teoriak beste dimentsio batzuk barne hartu dituzte. Tokiko garapen jasangarriaren ikuspegia 90eko hamarkadan hasi zen zabaltzen, eta tokiko zein eskualde politikak eraikitzeko oinarri sendoa da. Gizarte-sistema eta ekonomia, baliabideen erabilera, garapen teknologikoa, inbertsioak eta erakundeak giza beharrak asetzeraz bideratu behar dira, baina naturarekin harmonian egotea bermatu behar da, ondorengo belaunaldiak ere beraien beharrak ase ahal izateko. Horrela, garapen jasangarriaren ideiak naturarekin harreman orekatuagoa eta egonkorragoa adierazten du, eta, era berean, ekonomiaren eta ingurumenaren harreman berriaren ikusmoldea bultzatzen du. Irizpide etiko eta moralak kontuan hartu behar direla defendatzen du, munduan baliabide mugatuak daudela kontuan izanik. Ekoizpen eta kontsumo ahalmena garrantzitsuak izango dira, baina populazioaren bizi kalitatea egongo da erdigunean. Zentzu horretan, tokiko garapen jasangarriaren ikuspegitik bateratu beharreko hiru helburuak eraldaketa produktiboa, ekitate handiagoa eta ingurumenaren jasangarritasuna izango lirateke (ikus Hegoak Zabalduz seriearen *Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak* alea).

Gizarte berritzailea duen erregioaren ikuspegiak ere kutsu ekonomizista alde batera utzi, eta giza beharren asebetetzarako bestelako gobernantza eredu garrantzia azpimarratzen du. Gizarte-berrikuntzak bi esanahi ditu. Lehenik, oinarritzko giza beharrak asetzearekin lotuta dago. Esanahi hori hurbil dago giza garapenaren kontzeptutik, hurrengo atalean azaltzen den moduan. Biek onartzen dute merkatu ekonomiaren bilakaera eta estrategiek ezin izan dituztela giza beharrak ase, batez ere kontuan hartuta mundu mailan dauden errenta eta aberastasun desberdintasun hazkorak. Gizarte-berrikuntzaren bigarren adierak adierazten ditu, batetik, pertsonen eta giza taldeen arteko harremanetan gertatzen diren berrikuntzak, eta, bestetik, horrekin lotutako gobernantzarako era berriak. Gizartean dauden beharren agerpenerako mekanismoak azpimarratzen ditu, eta eskaera horien aurrean gaur egun merkatuak eta estatuek erakusten dituzten mugak salatzen ditu (Estensoro eta Zurbano, 2010).

Gobernantzarako eredu berrien bitartez, agenteen parte-hartzerako aukerak demokratizazio prozesuekin erakusten ditu eta agenteen lotura, berriz, politika publikoen diseinuarekin eta inplantazioarekin. Era horretan, gizarte berritzailea duen erregioa eraikitzeko, funtsezkoa da tokiko gobernantza sustatzea, eta hori nahitaez kalitatezkoa eta barneratzailea izan behar da. Esate baterako, arlo hauek landu behar dira horretarako: aktiboagoa eta antolatuagoa den herritartasuna sustatu, elkarreragiteko eztabaida-gune egonkorak sortu, gizarte-agente berriak barneratzeko mekanismoak bermatu, eta publikoak diren gaien kudeaketa eraginkorra eta gardena bultzatu, besteak beste (Méndez, 2013).

XXI. mendearen bigarren hamarkadan egon den krisi finantzario eta ekonomikoaren testuinguruan, erresilientziaren ideia zabaldu da azken urteotan. Erresilientzia deitzen zaio edozein sistemak (natura, ekonomia edo gizarte-sistema) talkak jasateko duen erresistentziari. Lurralde erresilientzia, beraz, arriskuak egoki kudeatzearekin lotzen da, hondamendi edota zailtasunen aurrean eskualde batek egoera horri erantzuteko, irauteko edota hortik berreskuratzeko gaitasuna erakustearekin. Zentzu horretan, eskualde erresiliente ez da arrakasta ekonomikoarekin lotzen, baizik eta denboran zehar arrakasta hori mantentzeko gaitasunarekin, alegia, sisteman *shock* bat dagoenean edo nazioarteko lehiaren oinarriak aldatzen direnean, lurralde horrek egoera berrira doitzeko duen gaitasunarekin. Alderantziz, erresiliente ez den eskualde batek ez du eraldatzeko saiakeran arrakastarik izango, eta isolatuta geratuko da zaharkitutako egitura batean. Hori eskualde zaurgarria izango litzateke, eta konponezina eta atzeraezina den kaltea jasoko luke (Christopherson et al, 2010).

Azken batean, erresilientziaren ikuspegiak honako galdera hau mahaigaineratzen du: zergatik dira eskualde batzuk epe laburrean zein luzean kalte sozioekonomikoei aurre egiteko gai, eta beste batzuek porrot egiten dute antzeko egoera baten aurrean? Ikuspegi honek eskaintzen duen abantaila bat da analisiaren gakoak aldatzea. Batetik, hazkundera eta lehiakortasunean oinarritzen diren planteamenduak baztertu, eta tokiko berezitasunak eta garapenerako behar diren elkarrekintzak nabarmentzen ditu. Bestetik, epe luzeko lurraldeen erresilientzia gizarte-ikaskuntzako prozesuei, giza gaitasunen garapenera eta tokiko ezagutzari lotuta dago, eta, horrenbestez, ezezagunaren aurrean sortzen den arriskua eta zaurgarritasuna murriztea lortzen da.

## 4. Tokiko garapenaren ezaugarri nagusiak

Aurreko atalean agerian geratu den moduan, ez dago tokiko garapenaren teoria edo ikuspegi bakarra, baizik eta autore eta eskola anitzez osatutako hainbat hurbilketa. Are gehiago, hein handi batean, tokiko garapenaren lelopean biltzen diren proposamen asko "praktikatik eratorritako teoriak" dira; globalizazioaren testuinguruan, munduaren Iparraldean zein Hegoaldean arrakastatsuak izan diren esperientziak abiapuntutzat hartuta garatu izan diren sintesiak.

Muga horiek kontuan izanik, ondorengo atalean, saiatuko gara tokiko garapenaren ezaugarri nagusiak laburtzen. Ikuspegi zabal batetik, tokiko garapena da, lurraldean dauden baliabideetatik abiatuta, egitura produktiboaren, gizartearen eta kulturaren eraldaketa dakarren garapena. Sarri, lurraldeek erabili gabeko ekonomia, giza, gizarte eta instituzio baliabideak izaten dituzte, eta horiek mobilizatzea da tokiko garapenaren xedea. Tokiko garapena eskualde bakoitzeko berezitasunetara egokitu behar da, eskualde bakoitzeko beharrak eta errekurtsoak ezberdinak baitira. Hortaz, tokiko garapenaren ideiak ez dio soilik eskalari erreferentzia egiten, hau da, udalerrietan, eskualdeetan edota erregioetan gertatzen den "edozein" aldaketa sozioekonomikori, baizik eta lurraldetik abiatuz eta tokiko eragile publiko eta pribatuen parte-hartzearekin martxan jartzen den prozesu endogenoari.

### 4.1. Garapenaren ikuspegia

Definizio zehatzik egon ez arren, oro har, tokiko garapenak, lurralde batean dauden baliabideak ardatz hartuta, bizi kalitatea hobetzera bideratutako garapen estrategiak biltzen ditu (Pyke, Rodriguez-Pose eta Tomaney, 2006). Zentzu horretan, garapena ez da termino ekonomikoetan soilik neurtzen, nahiz eta begiratu egingo den tokiko enpresei –edo lurraldeko egitura produktiboari– zer eskain diezaiokkeen. Tokiko garapenak enpresen sorkuntza eta lehiakortasuna, enplegua, gizartearen bizi kalitatea, eta kultura eta erakundearen aldaketa du xede, alegia, lurraldearen ekonomiari, gizarteari, kulturari, instituzioei eta ingurumenari dagozkien alderdiak hartzen ditu.

Ikuspegi zabal honetatik, garapena dimentsio anitzeko prozesua litzateke. Dimentsio ekonomiko batetik, tokiko garapenak lurraldeko egitura produktiboaren eraldaketa esan nahi du, globalizazio testuinguru batean enpresa handien aurrean lehiakorra izan eta enplegua sortu ahal izateko. Egitura produktiboa, enpresa indibidualen batura baino, enpresa sistema gisa ulertzen da, zeinetan enpresen arteko loturak eta harreman formal eta informalak egoten diren.

Lurralde egitura produktibotik abiatuz, tokiko garapenak enplegua sortzea du xede. Enplegurik gabeko eskulana mobilizatuz, ekintzaitza bultzatu eta mikroenpresa berriak sortzea da helburu nagusietako bat. Izan ere, munduko hainbat lekutan agertutako esperientzia asko krisi testuinguru batean sortu dira, desindustrializazioaren aurrean enplegua garatzeko alternatiba gisa.

Dena dela, lurraldea ez da soilik baliabide produktiboak biltzen dituen espazioa. Zentzu zabalago batean, lurraldeak gizarte ere barne hartzen du, horren identitate propioari erreparatu, eta historia, kultura, tradizioak, erakundeak, tokiko gizartearen erlazioak, naturarekiko erlazioa, etab. kontuan hartzen baititu. Horiek ulertzea oso garrantzitsua da tokiko garapen estrategiak aurrera eramateko orduan, horien guztien gainean eraikiko baitira. Oinarrian dauden faktore horiek guztiak dira garapen estrategiak sostengatuko

dituztenak; eta, beraz, faktore horiek kontuan hartzen eta errespetatzen dituzten estrategiek soilik lortuko dute horien onespina. Zentzu horretan, tokiko garapena prozesu konplexua izango litzateke, ekonomia alternatibak eta, enplegua garatzeko prozesuan, identitatea, erakundeak, gizarte-erlazioak eta, oro har, lurraldearen kultura barne hartzen baititu.

Ilido horretatik, azken urteotan zenbait autore ekonomia, gizarte eta ingurumen helburuak bateratzen saiatu dira. Morganek (2004, 884 or.), adibidez, lurralde garapenaren literaturak kutsu ekonomizista izan duela salatzen du, eta, haren esanetan, bereizi egin beharko lirateke instrumentalki esanguratsuak diren gauzak (enplegua, errenta) eta berez garrantzitsuak direnak (osasuna, ongizatea, hezkuntza); bizi kalitatearen eztabaidaren muinean dagoen bereizketa. Aurreko atalean ikusi bezala, tokiko garapen jasangarria eta gizarte berritzailea duen erregioaren proposamenak ikuspegi zabalago horren lekuko dira.

## 4.2. Behetik gorako garapen estrategia da

Azken hamarkadetan garatu diren proposamenak anitzak izan badira ere, guztiek azpimarratzen dute garapen prozesuak lurraldetik hasi behar direla. Politika konbentzionalak Estatu-nazioa izan du garapenaren ardatz eta subjektu, goitik beherako (*"top-down"*) hurbilketa batetik (Guridi, 2017). Alegia, gobernu zentrala izan da, industrializazioaren bitartez, eskualde eta udalerrien garapenaren eragile nagusia, eta helburua, berriz, Estatu ekonomiaren hazkundea. Zentzu horretan, lurralde politika konbentzionalak eremu atzeratuetan ardaztu izan dira; horietan, industria proiektu handiak kokatu dituzte, eskualdean trakzio efektu bat bilatzeko asmoz, edota enpresak erakarri dituzte, azpiegitura, sorospen eta bestelako pizgarriak erabiliz (aurreko atalean aipatutako kausazio metakorraren teoria edo hazkunde poloen teoria dira horren adibide). Horrez gain, politika horietakoren bat eskualde batean eraginkorra izan denean, hori bideratu da beste eskualde batzuetan ere errepikatzen, baina eskualde bakoitzaren berezitasunei arretarik jarri gabe. Horrek eragin negatibo handia izan zuen biztanleengan, ez baitzuten parte hartu euren lurraldeetako garapen estrategiak eraikitzen.

Politika konbentzionalak goitik beherako ikuspegia du; tokiko garapena, aldiz, behetik gorako (*"bottom-up"*) garapen estrategia da. Ilido horretan, lurraldeko baliabideek eta indarrek bultzatuta, eta goranzko norabidean, gertatzen den garapen gisa uler daiteke. Ekimena udalerrri edo erregioan sortzen da; arrakasta izan dezan, funtsezkoa da gizarte-eragileen eta, oro har, gizartearen babesa izatea. Ikuspegi tradizionalak estatu administrazioaren esku uzten du lidergoa; tokiko garapenak, berriz, eragile sozial eta ekonomikoek parte har dezaten sustatzen du, horien eta administrazioaren kooperazio horizontalaren bitartez. Hala ere, behetik gorako ikuspegia nagusi izan arren, erabakitze ahalmena duten beste eskalen arteko loturak garatu behar dira. Ezinbestekoa da beste eskalekiko (probintzia, erregioa, Estatuak, estatuz gaindikoa) koordinazioa eta elkarrekintza, nolabait behetik gorako ekimenak goitik beherako erabakiekin osatzeko.

Beste berezitasun bat estrategian datza. Garapen prozesua tokiko baldintzen diagnostiko batekin hasten da, lurraldearen ahuleziak eta gaitasunak identifikatu, eta garapena horien gainean eraikitzen. Hau da, dauden baliabide eta ahalmenetatik abiatzen da, tokiko ekonomia sistemaren ahuleziak mugatu eta potentzialtasunak indartzeko asmoz. Hortaz, garapen neurriak nagusiki bideratuko dira jarduerak garatzeko funtsezko baldintzak hornitzera.

| 2. taula. Tokiko eta erregio garapena "goitik beherako" eta "behetik gorako" ikuspegietan |  |
|---|--|
| Garapen politika konbentzionala   | Tokiko eta erregio garapena  |
| Goitik beherako ikuspegia: non esku hartu governu zentralak erabakitzen du                | Behetik gorako ikuspegia: garapena lurralde guztietan sustatzen da, eta, sarri, ekimena behetik suertatzen da                                    |
| Kudeaketa estatu administrazioaren esku   | Kudeaketa deszentralizatu: kooperazio bertikala governu maila desberdinen artean, eta kooperazio horizontala agente publiko eta pribatuen artean |
| Garapenaren sektore ikuspegia   | Garapenaren lurralde ikuspegia (udalerrria, eskualdea, erregioa)   |
| Industria proiektu handiak  | Tokiko garapen ahalmena erabili, aldakorra den testuinguru globalizatu batean tokiko ekonomia sistemaren doikuntza bultzatzeko                   |
| Finantza-laguntzak, sorospenak eta bestelako pizgarriak, ekonomia jarduerak erakartzeko   | Ekonomia-jarduera garatzeko funtsezko baldintzak hornitu   |

Iturria: Pyke, Rodriguez-Pose eta Tomaney (2006).

### 4.3. Lurraldea, subjektu eraldatzaile gisa

Aurreko eztabaidetatik, ondoriozta dezakegu tokiko garapena lurraldetik hasten den prozesua dela, eragile sozioekonomikoek eta erakundeek lurraldeko baliabideak mobilizatuta aurrera eramaten duten eraldatze prozesua. Zentzu horretan, lurraldea *subjektu eraldatzaile gisa* ulertzen da, alegia, harreman sozioekonomikoetarako *euskarria* ez ezik, garapenerako potentzialtasunak eskaintzen dituen baliabide estrategikoa.

Ikuspegi ekonomikotik, eremu geografiko batean kontzentratzeak hainbat abantaila ekonomiko eskaintzen dizkie enpresei. Batetik, eskualde batean kokatutako enpresa bakoitza ekoizpen prozesu bateko fase ezberdinetan espezializatzen bada, enpresa txikien sistemak ere eskalako abantailak lor ditzake enpresa handien aurrean. Horiek beren hornikuntzak merkatu lokal horretatik eskuratuz gero, bai enpresa sistema bai tokiko ekonomia bera hazi egingo dira. Bestetik, inguruan dituzten espresetatik ikasteko aukera ere badute, eta hori funtsezkoa da berrikuntzarako eta lehiakortasunerako. Langileak eta enpresak elkarren ondoan kokatzean, elkarrengandik ikasten dute, sortzen diren harreman eta loturei esker, lurraldean dagoen egiteko modu berezi horri esker eta, oro har, *atmosfera industrialari* esker.

Lurraldea, dena dela, ez da soilik ekonomia-abantailak eskaintzen dituen euskarri fisikoa; izan ere, espazio soziala ere bada, zeinak gizarte-egitura, kultura, egiteko moduak eta identitatearen dimentsioak barne hartzen dituen. Zentzu horretan, Duboisk (2014) denboran eta espazio konkretu batean kokatuta dagoen eremu esanguratsu eta kultural gisa definitzen du lurraldea, eta, lurralde horretan, identitate komun bat eraiki dute erlazio zein prozesu historikoen. Identitate hori eragileek sortu dute euren artean eta gizartearekin zein naturarekin izandako erlazioen bitartez. Beraz, identitatea zer den ulertzeko, lurraldearen historiari, kulturari, tokiko gizarteari eta egon diren erlazioei erreparatu beharko zaie.

Denboran zehar garatutako identitateak, instituzioek eta egiteko moduek, hortaz, garapen ibilbidea baldintzatzen dute. Hori dela eta, *ibilbidearen dependentzia* metafora (*path dependency*) erabiltzen da historiak duen eragina adierazteko. Lurraldean errotutako harreman sozioekonomikoek, usadioek, arauak, egiteko moduek eta antolakuntza ereduak moldatzen dute etorkizuneko garapena. Horrek ez du esan nahi, halaber, ibilbidea aurretik zehaztua dagoenik, aldaketa prozesuak ez baitira linealak, eta, hortaz, posible da garapen ibilbidea aldatzea.

## 4.4. Baliabide endogenoak eta exogenoak

Tokiko garapena aurrera eramateko, baliabideak behar dira, eta, hortaz, beharrezkoa da aztertzea baliabide horiek nondik eta nola lortzen diren. Goitik beherako estrategiak saiateren dira lurraldetik at dauden baliabideak –enpresa handiak eta atzerriko inbertsio zuzena– erakartzen. Logika horrek baliabide exogenoen bitartez lortu nahi den hazkunde ekonomikoari egingo lioke erreferentzia. Bestalde, tokiko garapena garapen endogenoarekin lotzen da; hartara, lurraldean bertan errotutako baliabideak erabilia bilatzen den garapena litzateke.

Ilido horretan, Boisierrek (1993) adierazten duenez, endogenotasunak elkar gurutzatzen diren lau mailatan eragiten du. Lehenengo maila politikoa da. Tokiko gizartearen ahalduntze prozesu baten bitartez agertzen da, gizarte horrek garapen estrategiaren negoziatio eta erabakitze prozesuetan parte hartzen baitu. Horren ondoren, epe luzean mantentzeko gai den ekonomia dibertsifikatua lortzea da bigarren maila. Hirugarrena lurraldeak berak zientifikoki eta teknologikoki hazteko duen gaitasuna da. Eta, azkenik, laugarrena maila kulturala da; azken hori da tokiko identitatearen sortzailea.

Baliabide endogenoen bidezko garapena prozesu berritzailea da, zeinetan lurraldea ez den enpresa handien hartzailerik pasibo bat, ezpada elementu aktibo bat, bere garapenerako estrategian erabakitzeko ahalmena duena eta ekonomian eragiteko gai dena. Dena dela, baliabide exogeno eta endogenoak bereizteak ez du esan nahi kanpoko enpresak eta baliabideak errefusatu behar direnik, horiek ere ekonomia sistemaren parte baitira. Gakoa da kanpoko baliabide horiek nola endogenizatu, nola errotu lurraldean, beste enpresa eta eragileekiko harremanak indartzeko, eta, azken finean, garapen prozesuaren parte izan daitezen.

## 4.5. Kapital soziala

Lurraldean errotutako eragileak eta baliabideak mobilizatu behar diren heinean, garrantzitsua da horien artean konfiantzan oinarritutako lankidetzaren harremanak garatzea. Zentzu horretan, kapital soziala da koordinatutako elkarrekintzak erraztuz gizartearen efizientzia hobetu dezaketen gizarte-antolaketa eragileak, hala nola, konfiantza, arauak eta sareak biltzen dituen kontzeptua.

‘Kapital’ hitza barne hartzeak aditzera ematen du kapital sozialak garapenerako zenbait abantaila eskaintzen dituela. Batetik, denboran zehar garatutako ohiturek, errutinek, arau informalek etab. erraztu egiten dute konfiantza giroa egon dadin. Hori oso garrantzitsua da tokiko garapenerako. Tokiko ekonomia enpresa sistema gisa ulertu behar da, zeinetan gertutasunak erraztu egiten dituen enpresa eta eragileen arteko harremanak. Gertutasuna ez da nahikoa enpresen artean sare harreman sendoak izateko; ezinbestekoa da horien artean konfiantza giroa egotea. Konfiantzak ahalbidetzen du enpresen merkatu harremanak (hornitzaile-bezero) sortzea eta, batez ere, enpresek elkarrengandik ikastea, enpresa sistemaren berrikuntzarako ahalmena eta lehiakortasuna indartuz. Gertutasuna eta konfiantza egoteak ahalbidetzen du tokiko enpresek eta eragileek lurraldeari ezaguerak atxikitzea, eta horrek abantaila lehiakorra eskaintzen dio lurraldeari.

Konfiantza ere funtsezko elementua da garapen prozesua koordinatzeko. Esan bezala, tokiko garapenak harreman sozioekonomikoen kudeaketa deszentralizatua onesten du, eta, hala, sektore pribatuak eta gizarte zibilak gobernu erakundeekin batera gobernantza prozesuan parte hartzen dute. Lehenengo atalean aipatutako eskala anitzeko gobernantzaren ideiak gobernu mota honi egiten dio erreferentzia. Kasu horretan, autoritatea ez dago gobernuaren boterearen gain, baizik eta hainbat eskalatan, eragile publikoek, pribatuek eta gizarte zibilak osatutako sare autorregulatuetan. Gobernantza deszentralizatu horretan, desagertu egiten dira esparru publikoaren eta pribatuaren arteko mugak, eragile desberdinek osatutako sareak baitira lidergoaren ardura hartuko dutenak. Zentzu horretan, tokiko garapena gobernantza prozesu interaktibo eta parte-hartzailea da, zeinetan hainbat eragile elkartzen diren lurraldetik abiatzen den garapen iraunkorra lortzeko.



## 5. Garapen ekonomikotik giza garapenera

Garapenaren inguruan hausnarketa kritikoa nagusitu da azkenaldian, batik bat 2008an lehertu zen Atzeraldi Handiak hauspotuta. Faktore ugari daude garapen ereduaren kontzeptuaren krisiaren atzean. Hasteko, garapenaren eta hazkunde ekonomikoaren arteko lotura zalantzan jarri da. Gainera, eredu hori ez dator bat iraunkortasunarekin, ingurumenaren nariadurak eta berriztagarriak ez diren natur baliabideen gehiegizko kontsumoak garapen eredu hedatzeko mugak erakusten baitituzte. Bestetik, genero desberdintasunak gaitatzeko mekanismoen gabezia du garapen eredu zaharrak. Globalizazioaren erronkei erantzuteko ahalmen eskasa da, azkenik, garapenaren krisia azaltzen duen beste elementu bat.

Testuinguru horretan, eta neoliberalismoaren doktrina nagusitu zenetik –80ko hamarkadan–, ekarpen teoriko batzuk hasi ziren paradigma horren betiko ikuspegi nagusiak –baliabideen garrantzia eta produkzio ahalmena edo errentaren sorrera– zalantzan jartzen. Ondoren, beste batzuen artean, Garapenerako Nazio Batuen Programak (UNDP) bultzatutako giza garapenaren korranteak oinarritzko beharren asebetetzean eta gaitasunen garrantzian egin du azpimarra. Giza garapenaren kontzeptua aberastu duten beste hainbat egile ere badaude, Hegoak Zabalduz seriearen lehen zenbakiko 6. taulan Guridik (2017) erakusten duen moduan.

| 3. taula. Tokiko giza garapenaren adierak |                                       |   |  |
|---|---------------------------------------|---|--|
|   | Ekarpenak                             | Osagarriak  | Egile batzuk   |
| <i>Giza garapena</i>                      | Gaitasun indibidualak eta kolektiboak | Ongizatea<br>Kapital soziala<br>Giza segurtasuna<br>Parte-hartzea / gobernantza | Sen; M. Nussbaum; M. Max-Neef; S. Deneulin; L. Doyal; I. Gough (...)                                     |
| <i>Tokiko dimentsioa</i>                  | Lurralde eta komunitate proiektua     | Garapen endogenoa<br>Tokiko kudeaketa<br>Balioak                                | F. Moulaert; J. Nussbaumer; J. L. Klein; Ph. Cook; K. Morgan; E. Soja; F. Alburquerque; A. Lipietz (...) |

Tokiko giza garapenak bi ekarpenetatik edaten du: giza garapenetik eta tokiko garapenaren dimentsiotik. 2. taulak erakusten duen sintesian, komunitatearen eta bertako eragile eta aktore nagusien garrantzia azpimarratzen da. Lurraldeko komunitatea balio sistema baten gainean eraikitzen da, eta garapen proiektu bat partekatzen du. Gainera, garapena endogenoa izateak esan nahi du tokian tokiko agente eta baliabideak direla garapen proiektuaren erdigunea. Proiektu horren inguruko kudeaketa eta gobernantza giltzarri dira testuinguru globalean etorkizuneko alternatibak garatzeko.

Bestalde, giza garapenaren ekarpenak garapena bera ulertzeko modua bereizten du, tokiko garapenari buruzko beste ikuspegi kritiko batzuekiko. Izan ere, giza garapenak ongizatea jartzen du garapenaren erdigunean. Ongizatearen kontzeptuari lotutako ideiak erreferentzia objektiboetara jotzen ari dira, oinarritzko gaitasun indibidualen zerrenda idatzi duen Nussbaum (2012) egilearen ekarpenak tarteko. Halaber, gero eta indar handiagoz azpimarratzen dira gaitasun kolektiboek eta ongizatearen dimentsio sozialak duten garrantzia. Gaitasun kolektiboak dira talde edo erakunde batek egunez egun gauzak egiteko eta mantentzeko duen trebezia, jarrera eta motibazioen multzoa (Dubois, 2011).

Dimentsio sozial eta kolektiboa islatzen duten kontzeptuetatik bi dira nabarmentzekoak: giza segurtasuna eta kapital soziala. Garapenerako Nazio Batuen Programak aurkeztu zuen duela hogeitatu urte giza segurtasunaren kontzeptua, eta berriz ere indarra hartu du gaur egungo krisi eta zaurgarritasun zein zalantzazko egoeran. Horren gakoa da, segurtasun konbentzionalari eustea ez ezik, giza garapena berma dadin ziurgabetasun testuinguruetan ere baldintzak eraikitzea.

Tokiko giza garapena sustatzeko, aurreko atalean aztertutako kapital soziala, tresna hutsa baino, helburu bat da bere osotasunean. Era horretan, kapital soziala litzateke harreman sozialen kantitatean eta kalitatean islatzen diren balio sozial partekatuen konpromisoa (Baser eta Morgan, 2008). Tokiko komunitatearen garapenerako proiektua harilkatzeko, ezinbesteko faktorea da konfiantzan oinarritutako kapital soziala, zeina, gainera, tokiko gobernantza egokirako oinarria baita.

Azken finean, tokiko giza garapena ahalegintzen da tokiko komunitateen garapen baldintzak hobetzeko xedez tokiko komunitateak ahalduzko helburua duten oinarri teorikoak eta metodologikoak ezartzen. Beraz, tokiko giza garapenak tokiko komunitateen prozesu integrala interpretatzeko esparrua eskaintzen du. Prozesu honen bidez, eta norbanakoentzat, giza taldeentzat eta lurralde mailan antolatutako komunitateentzat aukerak zabalduz, gizarte batek modu autonomoan erabakitzen du bere etorkizun desiragarria eta posiblea. Etorkizunean, prozesuak termino ekonomiko, sozial eta politikoetan ongizate baldintzak hobetzeko helburu argia izango luke, eta, horretarako, ezinbesteko gakoak dira genero ekitatea, jabetzea, parte-hartzea, iraunkortasuna eta justizia soziala.

## 6. Teoriatik praktikara

Tokiko garapenaren inguruan egindako berrikusketa osatzeko, bi esperientzia praktikoa aurkeztuko ditugu; bata, etxekoa –Gipuzkoa Sarean–, eta bestea, Argentinan ospe handia izan duen Rafaela hirian gauzaturikoa. Biak dira ibilbide desberdinen adibide, hala prozesuari nola emaitzari dagokionez, baina biek ere lurralde mailako garapena jarri dute erdigunean<sup>1</sup>.

### 6.1. Gipuzkoa Sarean

Gipuzkoa Sarean (GS) lurralde garapenera era berrian hurbiltzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) sustatutako lurralde garapenerako ekintza ikerketako proiektua da, eta 2009-2015 aldian mamitu zen. Ondorengo urteetan jarraipena izaten ari da, Etorkizuna Eraikiz programari esker. Eskualdea lurralde unitatetzat hartuta, Gipuzkoan gobernantza sozioekonomiko berri baten oinarriak ezartzeko ahalegina da GS. Oinarri horiek finkatzeko, lurraldeko eragileen parte-hartzea sustatu nahi izan da, eta, horretarako, eragile politiko, ikertzaile eta lurraldeko eragileen arteko prozesu partekatua bideratu da (Costamagna, 2015).

Hona hemen GSk hasieran bultzatu zituen helburuak:

- Eskualdeetako, GFAko eta beste maila batzuetako politika-arduradunen eta arduradun teknikoaren arteko lankidetzarako espazioak sortzea.
- GFAko sail desberdinetan prozedurak sustatzea, eskualdeen parte-hartzea ahalbidetu dadin.
- GFAREN politiken eta eskualdeetako erronken arteko lerratzea lortzea.
- Eskualdeetan ikuspegi eta pentsamendu estrategikoaren garapena sustatzea.
- Gipuzkoan diharduten erakunde eta entitate ugari (esate baterako, unibertsitateak, teknologia zentroak, Gipuzkoa Berritzen, etab.) eskualdeetako errealitatera hurbiltzea.

Hasieran, 2009-2011 aldian, GFAk eta Donostiako Udalak bultzatuta, lurraldearen lehiakortasuna eta ongizatea hobetzeko xedez kapital soziala metatzeko asmoa hartu zuen GSk. Ondoren, 2011. urtean, gobernu aldaketarekin, proiektuak aurrera jarraitu zuen, baina aldaketa batzuk egin ziren. GFAk eta Orkestrak bideratuta, lurralde garapenerako eredu berri baterako elkarrizketa eta ikaskuntzarako espazio ugari sortu ziren. Horrekin batera, lurraldeko gobernantza eredu berri bat eraikitze ahalegina egin zen, eskualdeetako eragileak erdigunean ipinita. Beraz, hasierako lehiakortasunaren kontzeptutik lurralde

---

1 Kasuen analisia Costamagnaren (2015) lanetik atera dugu. Zehaztasun gehiagorako, jo iturri honetara.

garapenerako kontzepturako jautzia egin zen. Era berean, kapital soziala alboratu, eta Zubigintza terminoa hobetsi zen.

Irekitako prozesuaren eta lurraldearen konplexutasuna onartuta, hasieratik azpimarratu izan da horrek lurralde garapenerako **estrategian** duen garrantzia. Estrategiaren kontzeptua, lurraldeari aplikatuz gero, hiru ardatzek osatzen dute. Lehen ikaskuntza da; lurraldea egokitzen eta ikasten doan neurrian, estrategia urratsez urrats sortzen da. Bigarrenaren arabera, estrategia lurraldeko aktoreen arteko negoziazio prozesuan osatzen da. Eta, azkenik, lankidetzat dago; estrategia sortzeko prozesua lurraldearen kultura errotuta dago, eta, horrenbestez, prozesu hori taldean eta elkarlanean egiten da (Orkestra eta GFA, 2015). Printzipio horiek dagoeneko aplikatzen dira GFAREN eta bere Lurralde Garapenerako Zuzendaritzaren artean, GFA eta garapen agentziaren arteko harremanetan eta horien artean egin diren hitzarmenetan.

Azken buruan, GSK bultzatu nahi izan duena da epeko **aldaketa** prozesu bat lurralde garapenaren inguruan. Aldaketaren bidea lau urratsetan egitea proposatu zen. Lehen urratsean, **komunikatzeko** prozedurak hasi ziren aldatzen. Horretarako, berrikuntzak ezarri ziren GFAREN eta eskualdetako garapen agentzien arteko komunikazio ereduak: konfiantzazko giroa sortzeko bilerak eta kanpoko adituekin lan-saioak egin ziren, hainbat eragilarekin batera.

Bigarren urratsean, garapenerako **agenda berriak** sortu behar dira. Horrek esan nahi du garapen eredu berrirako edukiak zehaztu behar direla, bai eta eduki horiek lantzeko modua ere. Besteak beste, edukietan, adibidez, mahaigaineratu zen lurralde oreka –eskualdean eta eskualdeen artean– lehenesteko aukera. Moduari dagokionez, lan egiteko eta parte hartzeko moduak zaindu eta lehenetsi beharko lirakeke, eragileen ustez.

Lurralde garapenaren hirugarren urratsean, **governantza eredu berri** bat sendotzea hobesten da. Gipuzkoan gobernantza eredu berri bat eraikitzeke lehen urratsa eskualdeetako garapen agentziekin hasi zen. Eredu horrek bi helburu ditu. Batetik, eskualdeetan parte-hartze prozesuak indartzea, bertako estrategiak eragile guztien artean erabakitzeko. Eta, bestetik, maila anitzeko gobernantza indartze aldera, harremanak sendotzea, hala eskualdeetako aktoreen artean nola horien eta GFAREN artean. Hori bideratu ahal izateko, lankidetzat hitzarmenak bideratu dira garapen agentzien eta GFAREN artean. Testuinguru horretan, indartu egiten dira elkarriketarako guneak, eta, hemen, gogoeta egin nahi da Gipuzkoarako garapen ereduaz.

Aldaketarako laugarren urratsa da politika publikoak hobetzeko oinarriak jartzea. Lurralde garapenerako eredu berria eztabaidatzeaz harago, ekimen hau ezinbestekoa da eredu hori eraiki ahal izateko. Lurraldeko eragileek prozesuarekiko atxikimendua erakusten duten heinean, aldaketa ez da soilik politiketan islatuko, eragile horien tresna, erabilera eta ohituretan ere gorpuztuko bailitzateke. Politikei dagokienez, lehen aldaketa bat eman zen GFAREN eta eskualdeetako garapen agentzien arteko hitzarmen bat medio. Horri esker, eskualdeetako agentziek parte-hartzean oinarritutako gobernantza horizontaleko guneak sortu ahal izango dituzte beraien eskualdeetan.

Horrenbestez, GSren ekimenaren ezaugarri nagusiak ikusita, esan behar da tokiko garapenerako eredu berri baten oinarriak ezarri zirela. Oinarri horietan, tokiko giza garapenaren elementu ugari barne hartzen dira: prozesuak duen garrantzia, eragileen eta botere publikoaren arteko lotura ez hierarkikoa, gobernantza parte-hartzailea erdigunean jartzea, aldaketa sozioekonomiko eta politikoaren beharra gaitasun indibidualak eta kolektiboak hobetzeko, etab. Azken buruan, GS itxi gabeko bidea da, eta lurralde garapenaren konplexutasunaren adibide interesgarri bezain zalantzakorra.

## 6.2. Rafaela (Argentina)

Rafaela Argentinako Santa Fe probintziaren erdialdean dago kokatuta. Hiri hau, historikoki, oso lotuta egon da immigrazioarekin, eta XX. mendeko 20ko eta, batez ere, 30eko hamarkadetan, egitura produktiboa manuakturen ekoizpenean oinarritu zuen. Hala ere, 60ko hamarkadatik aurrera, automobilgintzan eta elikagaien industriarako makineria ekoizten ere hasi zen. 1991. urtean abiatu zen 2011ra arte iraun zuen tokiko garapen prozesu bat, zeina, 1996. urtean, tokiko gizarte guztia barne hartzen zuen prozesu parte-hartzaile baten ondorioz aurrera eramandako plan estrategikoan oinarritu zen (Albuquerque, 2004). Hori,

ikusiko dugun moduan, tokiko administrazio publikoaren rola berreskuratzean, sektore pribatuarekiko elkarlanean eta hezkuntzaren sektoretik zetozen ekarpenetan oinarritu zen batez ere. Hogei urteko prozesu horretan, oinarritzko bost elementu bereiz ditzakegu (Costamagna, 2015):

- Elkarrizketaren eta artikulazioaren aldeko apustua: elkarrizketan eta artikulazioan oinarritutako prozesua beharrezkoa da denen arteko prozesu bat eraikitzeko.
- Garapena hazkuntetik harago doan kontzeptua dela ulertzea: ekoizpenaren eta lanaren aldeko apustua garapenaren ikuspuntutik, eta ez hazkundearen ikuspuntutik. Hau da, besteak beste, hezkuntza, osasuna, kultura eta etxebizitza bermatuko dituen ikuspuntutik.
- Gobernuaren rol aktiboa eta udalerrriaren rol protagonista: batetik, Washingtoneko kontsentsutik zetozen neurri neoliberaletatik urrun geratu ziren Rafaelako agintariak, eta, biztanleriaren bizi kalitatea hobetzeko xedez, gobernuak rol aktiboa hartu zuen. Bestetik, deszentralizatu egin ziren prozesuaren inguruko erabakiak hartzeari eta horiek gauzatzeari zegozkionak.
- Esparru produktiboaren zein sozialaren integrazioa: tokiko garapenarekiko hurbilketa sistemikoa lortzeko, politika publikoak bideratu ziren egitura produktiboan zein arlo sozialean. Horrela, batetik, enpresa lokalak lehenetsi ziren kontratazio publikoari zegokionean, adibidez. Eta, bestetik, enpresa horien bitartez Rafaelak lortzen zuen aberastasuna lana, hezkuntza, osasuna, etab. hobetzeko gizarte-politikak bultzatzera bideratzen zen.
- Epe luzerako ikuspegi estrategikoa: konponbide partzial eta koiunturalek bide eman zieten garapen orokorrerako estrategia integralei.

Halaber, oinarritzko elementu horiei lotuta, tokiko gizartearen gaitasunen garapena ere egon zen. Besteak beste, hausnartzeko, politika publikoak kudeatzeko, hezkuntza eta berrikuntzarako agendak eraikitzeko, estrategiak garatzeko eta gobernantza berria eraikitzeko gaitasunak garatu zituzten. Ildo horretan, prozesuan zehar garapenaren inguruko hainbat gaitan oinarrituta, tokiko eragileak trebatzeko tailerrak eraman ziren aurrera. Trebakuntza eta tokiko garapenerako ikasketen institutuak (ICEDeL) eragile sozialak trebatzeko egindako hainbat lan ere aipatu behar dira. Gainera, tokiko identitatea eta balio kolektiboak ere garatu ziren, eta lurraren zatiketa minifundistak, izaera asoziatiboak, lanak eta tradizioak protagonismo handia izango zuten eraikiko zen etorkizunean.

Prozesu politikoaren eta formakuntza prozesuen arteko interakzioa ere ulertu behar da (Costamagna, 2015). Lehenek lurraldearen identitate kulturalari eta tokiko agintarien posizionamendu politikoari egiten diote erreferentzia. Formakuntza prozesuek, aldiz, kanpotik zetozen korrante teorikoei. Politikan eta enpresa munduan, baina baita unibertsitateetan edo komunikabideetan ere, paradigma hegemoniko neoliberalak zuen eraginari buruzko eztabaida zabaldu zen. Eredu hegemonikoarekiko eztabaida horiek lurraldearen eta bertan aplikatu behar ziren politikak diseinatu eta aurrera eramateko egiten ziren trebakuntza prozesuetan egon ziren. Tokiko agintarien pentsamendu ideologikoak aukera eman zuen diskurtso hegemonikoarekiko alternatibak garatzen ari ziren CEPALeko hainbat aditurekin artikulatzeko. Horrela, ikus daiteke nola ematen den kanpoko korrante teorikoen eta lurraldearen identitate kulturalaren arteko lehen interakzioa. Hala ere, aldi berean, neoliberalismoa oso errotuta zegoen bertako enpresa munduan. Edonola ere, aurrera eramandako elkarrizketa prozesu formal zein informalek pentsamendu hori irauli zuten, eta estatuaren rol aktiboagoaren alde egin zuten. Helburua akordioak lortzea zenez, konfiantza eraikitzeko neurriak jarri ziren abian. Elkarrizketa eta erabaki horiek ahalbidetu zuten formakuntzarako espazioak sortzea, eta, era horretan, formakuntza prozesuak prozesu politikoekin uztartzen hasi ziren. Ildo horretan, Tokiko Garapenerako Fundazioak enpresa berrikuntzarako eginda zuen lana eta tokiko estatuak adierazpen neoliberalen kontra enpresa txiki eta ertainak sustatzeko egindako lana ere garrantzitsuak izan ziren. Esperientzia praktikoa horiek ekarri zuten akordioak ahalbidetzen zituen aipatutako konfiantza giroa.

Argentinako 2001eko krisiaren eta aurreko hamarkadan izandako emaitzen ondorioz, neoliberalismoak indarra galdu zuen Argentinan. Horri gehitu zitzaion tokiko agintariak estatuaren garrantziaren inguruan eta garapenaren inguruan zuten ikuspegi zabala, eta beste agertoki bati ireki zitzaion bidea. Garai horretan, formakuntza prozesuak egonkortu egin ziren. Izan ere, tokiko gobernutik azpimarratzen da prestakuntza prozesu horiek bai Rafaelaren garapenerako bai lanaren kultura eta berrikuntza sustatzeko izan zuten garrantzia (Vázquez Barquero, 2009). Horrenbestez, ildo horretan zihoazen neurri politikoak indartu egin

ziren. Hala, hezkuntza espazio komunek eskain dezaketen ikaskuntza kolektiboak eta talde-lanak aukera ematen dute tokiko garapenaren inguruko formakuntza horizontala garatzeko.

Lehen esan bezala, kanpoko eragin teorikoek ere eragin zuten garapen prozesuan. CEPALeko adituak elkarlanean aritu ziren formakuntzarako espazioetan, sektore pribatuarekin eta publikoarekin batera. Izan ere, Rafaela berrikuntza produktibo zein instituzional berriak ezartzeko esperientzia egokia zen. CEPALekin batera, FOMINek enpresa garapenerako zentroa jarri zuen abian. Enpresa txiki eta ertainen inguruko adituak ere heldu ziren. Halaber, Bartzelonako plan estrategikoa burutu zuten adituek ere eragina izan zuten Rafaelaren garapenean. Horiek aritu ziren, prozesuari izaera sistemikoagoa emateko xedez, gizarte zibilaren beste sektore batzuekiko erlazioak zabaltzen. Bestalde, enpresarien eta sektore publikoaren arteko eztabaiden ondorioz, INTI Rafaela eta ITEC teknologia institutuak sortu ziren. Baterako kudeaketa politiko horri esker, sektore industrialean lan egiten duten langileentzako gaitasuna sortu, eta prozesuen berrikuntza landu zen. Aldi berean, Rafaelako Unibertsitate Teknologikoak berrikuntzan eta aldaketa teknologikoan oinarritutako bi gradu sortu zituen. ICEDeLek eta beste eragile batzuek tokiko garapenaren inguruko master bat ere bultzatu zuten. Italiako Emilia Romagna eskualdetik ikasita, sareen (*networking*) kontzeptua barneratu zen. CEPALetik zetozen adituek ere ekarpenak egin zituzten, nork bere ikuspuntutik. Gainera, Rafaelan egondako aditu gehienak DETE sarearen parte dira, eta, sare horretan, lurralde garapenerako esperientzietatik ateratako ikaskuntzak partekatzen dira.

Prozesuaren etapetan, eztabaidak bultzatu, erabakiak hartu edo elkarrizketarako espazioak sortzen zituzten pertsonak egon ziren. Horiek dira garapen prozesuaren bideratzaileak, eta, talde informala eta anitza izan arren, erraztu egin zuen esparru ezberdinetan garapena egon zedin (Costamagna, 2015).

## 7. Azken gogoeta

Gaur egungo testuinguruan, non prozesu globalak lurraldeetan gauzatzen diren, oso garrantzitsua da erregioek eta herriek prozesu horietan zer rol duten ulertzea, lurraldeak eurak izan daitezten euren garapenaren jabe. Helburua hori izanik, lan honetan aurkeztu ditugu, gero eta konektatuago dagoen munduan, lurraldeek beren garapen bilakaeran esku hartzeko zer aukera duten azaltzen duten teoria, kontzeptu eta garapen esperientziak.

Lurralde garapena zientzia ekonomikotik ikertu izan bada ere, azken hamarkadetan gero eta nabariagoa da beharrezkoa dela diziplina anitzeko ikuspegietatik hurbiltzea. Hortaz, gero eta ekarpen gehiago azpimarratzen dituzte orain arte bigarren maila batean egon izan diren faktoreak, hala nola, erakundeen garrantzia, gizartearen parte-hartzea edota ingurumenak inposatutako mugak. Zentzu horretan, garapenaren alderdi garrantzitsuenak identifikatzen dituzten kontzeptu eta teoria berriak ditugu, bizi dugun errealitate hau ulertzeko eta desiratutako etorkizuna diseinatzeko beharko ditugunak.

Aurkeztutako teoria eta ikuspegi arabera, tokiko giza garapena garrantzitsua da erronka honetarako. Batetik, pertsonak, beren beharrak eta gaitasunak erdigunean kokatzen dituelako, azken horiek bultzatzeko asmoz. Bestetik, bereziki garrantzitsuak diren dimentsio sozial eta kolektiboaren hainbat elementu barne hartzen dituelako. Azken batean, tokiko giza garapenak mahaigaineratzen du gizataldearen garapena ulertzeko funtsezkoak diren elementuak barne hartzen dituen marko bat, besteak beste, generoen arteko berdintasuna, burujabetza, parte-hartzea, iraunkortasuna eta justizia soziala.

Bukatzeko, esperientzia zehatzak aztertzeak duen garrantzia azpimarratu behar da. Gure kasuan, Gipuzkoa Sarean eta Rafaela aukeratu ditugu, lurralde horietan, tokiko baldintzetatik abiatuta, gizarte-eragileen parte-hartzea sustatu dutelako. Dena dela, kasu zehatzak aurkeztearen asmoa ez da horiek beste toki batzuetan kopia eta errepikatzea, garapen prozesua lurraldean errotutako ibilbide propioak eta ikasketek baldintzatuta baitago. Alabaina, arrakastatsuak izan diren estrategietatik ikastea aberasgarria izan daiteke, baldin eta lurraldeen baldintza zehaztetara egokitzen badira. Edozein kasutan ere, neurri eta proposamen oro eztabaidatua izan beharko litzateke, errealitate zehaztetan ez dadin inposatu arrotz den errezetarik.

## Bibliografía

- ALBURQUERQUE, Francisco (2004): "Desarrollo económico local y descentralización en América Latina." *Revista de la CEPAL*.
- AMIN, Samir (1986): *El desarrollo desigual*, Planeta-De Agostini, Bartzelona.
- BALDWIN, Richard (2017): *La Gran Convergencia. Migración, tecnología y la nueva globalización*, Antoni Bosch arg., Bartzelona.
- BASER, Heather; MORGAN, Peter (2008): *Capacity, Change and Performance. Study Report*. European Centre for Development Policy Management. Discussion Paper 59 B.
- BENKO, Georges eta LIPIETZ, Alain (arg.) (2000): *La richesse des régions: la nouvelle géographie socio-économique*, Presses Universitaires Françaises, Paris.
- BOISIER, Sergio (1993): "Desarrollo regional endógeno en Chile. ¿Utopía o necesidad?", *Ambiente y desarrollo*, 9(2), 42-45.
- COSTAMAGNA, Pablo (2015): *Política y formación en el desarrollo territorial. Aportes al enfoque pedagógico y a la investigación acción con casos de estudio en Argentina, Perú y País Vasco*, Deusto arg., Orkestra, Serie Desarrollo Territorial, Donostia.
- CHRISTOPHERSON, Susan; MICHIE, Jonathan; TYLER, Peter (2010): "Regional resilience: theoretical and empirical perspectives", *Cambridge Journal of Regions, Economy and Society*, 3(1), 3-10 or.
- DUBOIS, Alfonso (2011): *Desarrollo humano local: de la teoría a la práctica*, Hegoa-UPV-EHU, Bilbo.
- ESTENSORO, Miren eta ZURBANO, Mikel (2010): "Innovación social en la gobernanza territorial: los casos de Innobasque y de las redes comarcales de la Comunidad Autónoma del País Vasco", *Ekonomiaz-Revista Vasca de Economía*, 74 zk., 132-159 or.
- GURIDI, Luis (2017): *Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak*, Hegoak Zabalduz, 1 zk., UPV-EHU, Bilbo.
- HIRSCHMAN, Albert O. (1958): *The Strategy of Economic Development*, Yale University Press, New Haven.
- MASSEY, Doreen (1979): "In what sense a regional problem?", *Regional Studies*, 13, 233-243 or.
- MELLA, Jose María (koord.) (1998): *Economía y Política regional en el España ante la Europa del siglo XXI*, Akal Textos, Madril.
- MÉNDEZ, Ricardo (2013): "Estrategias de innovación para el desarrollo y la resiliencia de ciudades medias", *Documents d'Anàlisi Geogràfica*, 59(3), 481-499 or.
- MORGAN, Kevin (2004): "Sustainable regions: governance, innovation and scale", *European Planning Studies*, 12 libk., 6 zk., 871-889 or.
- MYRDAL, Gunnar (1957): *Economic Theory and Underdeveloped Regions*, Duckworth, Londres.
- NOFERINI, Andrea (2010): *Desarrollo, cooperación descentralizada y gobernanza multinivel*. Anuario de la cooperación descentralizada, Madril.
- NUSSBAUM, Martha (2012): *Las mujeres y el desarrollo humano*, Herder, Bartzelona.
- ORKESTRA eta GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2015): *Gipuzkoa Sarean. Bidean*, GFA arg., Donostia.
- PERROUX, François (1955): "Note sur la notion de pôle de croissance", *Économie Appliquée*, 7, 307-320 or.
- PIKE, Andy, TOMANEY, John eta RODRIGUEZ-POSE, Andrés (2006): *Local and regional development*, Routledge, Londres.

PORTER, Michael (1990): *The Competitive advantage of nations*. Harvard Business Review Book.

SWYNGEDOUW, Erik (1997): "Neither global nor local: glocalization and the politics of scale", hemen: COX, K. (arg.): *Spaces of globalization*, Guilford Press, New York.

VÁZQUEZ BARQUERO, Antonio (2007): "Desarrollo endógeno. Teorías y políticas de desarrollo territorial", *Investigaciones Regionales*, 11. zk., 183-210 or.

VÁZQUEZ BARQUERO, Antonio. (2009): "Desarrollo local, una estrategia para tiempos de crisis", *Revista Apuntes del CENES*, 28(47).

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminisмотik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegari so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorca Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martinez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.



